

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO


SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakariak nafarrei krisialdian izan duten "sendotasun eta irmotasuna" eskertu die

"Bizitzan garrantzitsuena ez da inoiz ez erortzea, erortzen garen bakoitzean zutitzea baino nabarmendu du Nelson Mandela Hegoafrikako lehendakari ohia aipatuz.

Viernes, 27 de diciembre de 2013

Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakariak Nafarroako herritarrek krisian erakutsitako "sendotasun eta irmotasuna eskertu du [urtearen amaierako mezuan](#). Gainera, berriki zendu den Nelson Mandela Hegoafrikako lehendakari ohia aipatu du, zera esanez, "bizitzan garrantzitsuena ez da inoiz ez erortzea, erortzen garen bakoitzean zutitzea baino .



Yolanda Barcina Lehendakaria, Gabonak direla-eta nafarrak zoriontzen.

Horren harira, Lehendakariak [mintzaldian](#) adierazi du lurraldeak lurralde horiek historiako une guztietan osatzen dituzten pertsonak bezain sendoak direla eta konfiantzaz esan du Nafarroak "geroz eta bateratuagoa den Europako eskualde garatuenetako bat izaten "jakingo duela .

Hori lortzeko, Yolanda Barcinak guztien "inoiz baino gehiagoko adorea eskatu du. "Egungo egoera zailetik ahalik azkarren irteteko guztion ahalegin bateratua behar da"; horretarako, Nafarroan gehiengo duten indar politikoez, estatuko eta Europako instituzioez eta, jakina, herritarrek parte hartu behar dutela azaldu du.

Enplegua sortzea eta beharrian handiena dutenentzako arreta

Gobernuaren egitekoari dagokionez, Nafarroako Lehendakariak zera azpimarratu du, "ahalik herstura handienarekin ari gara gobernatzen, gastuak murrizten kontuak bat etorrarazteko eta enplegua sortzeko eta beharrian handiena dutenei arreta emateko programak eskaintzen jarraitzeko".

Yolanda Barcinak herritar eta enpresa ugarik, baita administrazioek ere, bizi dituzten zailtasunak gogorarazi ditu, zerbitzuak eskaintzen "behar dituzten diru-sarrerak gutxitu zaizkielako; horrek neurri "gogorrak

hartzera "behartu" ditu.

Lehendakariak baieztatu du, hala ere, "erabaki horiek hartzeagatik" babes sozialeko sistemarik zabalenera bati eusten jarraitzen dugula. Era berean, gogorarazi du krisiaren ondorioz zuzenenak pairatzen dituztenak direla gobernuaren egitekoaren "oinarriko" helburua.

Amaitzeko, okerrera pasatu dela iragartzen duten adierazleak aipatu ditu. Hala eta guztiz ere, "horrek ezin gaitu lasaitzera bultzatu", baizik "zuhurtiaz jokatu eta kemenik galdu gabe gure lana egiten jarraitzea", Nafarroa hazkuntzaren bidera bizkorren itzultzen den autonomia-erkidegoetako bat izan dadin.